

## «Talentudunak erakartzeko eta eusteko Fellows Gipuzkoa Programa»ren 2017 deialdia (2017/03/02ko GAO)

### Xedea

2017ko deialdia egitea hautapen prozedura bidez nazioarte mailan garrantzia duten ikerketa taldeetan doktoratu osteko formazioa jaso duten ikertzaileak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen Gipuzkoako zentroetan sartzen laguntzeko

### Diruz lagundutako jarduerak

- a. Talentudunak erakartzea: Ekintza honen bidez, nazioarte mailako formazioa duten pertsonak erakarri nahi ditugu entitate onuradunen jardun esparruetan proiektuak gauzatzeko, eta gero, hurrengo fase batean, EAEko ikerketa talderen batean sartzeko. Ikertzaile horiek baldintza hauek beteko dituzte: doktoreak izango dira, eta doktoratu osteko formazioan arituak, dagokien esparruan nazioarte mailako garrantzia duen ikerketa talde batean. Ikertzailea kanpotik erakarri dela ulertuko da baldin eta azken hiru urteetan ez badu 6 hilabete baino gehiagoz lan egin Euskal Herrian.
- b. Talentudunei eustea: Ekintza honen bidez jarraipena eman nahi zaie, gehienez hiru urtez, Fellows Gipuzkoa Programaren bidez lagundu diren ikerlariei, ikerketa talde batean sartu arte.

### Eskaerak aurkezteko modua eta epea

Eskaeraren instantzia eta erantsitako dokumentazioa modu elektronikoa, informatikoa edo telematikoa aurkeztuko dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez (<https://www.gfaegoitza.eus>), diru laguntzen atarira sartuta.

**Eskaerak aurkezteko epea 2017ko martxoaren 30ean bukatuko da, 13:00etan.**

Eskaerarekin batera honako agiriak aurkeztu behar dira:

- a) Erantzukizun aitortpena, eranskinean edo bide telematikoz egindako eskaeran dagoen ereduari jarraituz, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko ezein debekurik ez izatearena.
- b) Egiaztagiriko administratibo positiboa, organo eskudunak emandakoa, egunean dagoela zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan ziurtatzen duena. Aipatu den dokumentazioaren ordean, aurkez daiteke eskatzaileak organo kudeatzaileari emandako berariazko baimena datu horiek administrazioetatik zuzenean lortzeko.
- c) Halakorik izanez gero, eskatzaileak edozein administraziori edo estatu zein nazioarte mailako entitate publiko nahiz pribaturi eskatutako edo haiengandik

- eskuratutako diru laguntzen, sarreraren edo baliabideen adierazpena, eskatutakoekin bateraezinak diren diru laguntzak jasotzen dituen.
- d) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean egiaztatuta egotearen zuriaketa.
  - e) Entitateak diru laguntza eskatzen dueneko denboraldian, ikertzailea kontratatzeke aurreikusitako aurrekontua.
  - f) Kontratatuko den ikertzailearen CVA, 6.1.a) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituen.
  - g) Ikertzailea sartuko den edo sartuta dagoen ikerketa taldeak egingo duen lanaren memoria, 6.1.b) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituen.
  - h) Ikertzailea sartuko den edo sartuta dagoen ikerketa taldearen memoria, 6.1.c) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituen.
  - i) Diru laguntza eskatzen duen entitatearen memoria, 6.1.d) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituen.

### Diru laguntzen zenbatekoa

Ikerlaria kontratatzeak eragindako gastuen %100 arte finantzatu da, gehienez ere 50.000 euroekin lehenengo kontratazio urtean; %80 arte bigarren urtean, gehienez ere 40.000 euroekin; eta %70 arte hirugarren urtean, 35.000 euroekin gehienez.

### Barne prozedura:

Deialdi honetara aurkeztu nahi duen ikertzaileak jakinarazi beharko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbide elektronikoaren bidez **martxoaren 24a baino lehen**, harrera taldea zein izango den adieraziz, errektoreordetzak deialdiak eskatzen duen finantzaketa gain har dezan. Ikerketaren aldeko errektoreordetzak egiaztatuko du nahikoa krediturik dagoen talde eta proiektuen atalean, finantzaketari aurre egin ahal izateko eta ikertzaile nagusia ados dagoen, baliatu beharreko funtsak helburu horretan baliatzeko.

**GARRANTZITSUA:** Harrera taldeak **bere egin beharko du kontratuaren kostu osoa**, bai eta laguntza hurrengo urteetan ematen ez bada ere, ikertzailearen jarraikortasuna bermatu beharko baita **deialdiak ezartzen dituen hiru urteetan zehar**.

### Harremanetarako:

UPV/EHU:  
Tfno.: 94 601 80 08  
Helbide elektronikoa:  
[igz.deialdiak@ehu.eus](mailto:igz.deialdiak@ehu.eus)

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA:  
Tfno.: 943 112 233  
Helbide elektronikoa:  
[msalustiano@gipuzkoa.eus](mailto:msalustiano@gipuzkoa.eus)